



A m o r o t o k o U d a l a

Elxalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 06/04

2004KO EKAINAREN 16AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko ekainaren hamaseian, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Bitor Mari Gabiola Leniz
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikarán Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea
Idazkaria: César Gandarias Badiola

Bertaratu ez direnak:

Ramon Abaroa Iturran

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- MIREN KORTABITARTE ANDREARI LOKALA TABERNA BEZALA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA.-

Miren Kortabitarte Zabala andreak, azken urteotan lez, Pontxekua Etxeko beheko solairuan duen lokala San Martin jaietan taberna bezala irekitzeko udal baimena eskatu du.

Udalbatzak aho batez erabaki du Pontxekua Etxeko beheko solairuko lokala 2004ko San Martin Jaietan taberna bezala irekitzeko baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Taberna uztailaren 3, 4 eta 5ean bakarrik egongo da zabalik, ostalaritzako jarduerentzat ezarritako neurri orokorrak bete beharko dituelarik.

- Ur hornikuntza, zaborbiltze eta estolderi zerbitzuagatik dagokion tasa ordaindu beharko da. Alta emango zaio zerbitzuan (12,02 eurotako tasa ordainduz) eta jaiak bukatutakoan baja eskatu beharko du (bestela, erreziboak kobratzen jarraituko da).

- Argi indarrari dagokionez, Amorotoko Udalak jaietarako kontratatutako engantxetik hartuko da, bertatik tabernara arte argi indarra eramatea zure kontura izango delarik. Honez gain, Iberdrola-k engantxea dela eta kobratzen duenaren erdia ordaindu beharko diozu Amorotoko Jai Batzordeari.

2.- GORKA ZATIKA KORTABITARTE JAUNARI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.-

Gorka Zatika Kortabitarte jaunak, Eleizalde auzoan baserri bat eraikitzeke lanak egiteko aurkeztu duen udal lizentzi eskaeraren berri eman da, obra honen aurrekontua 181.664,34 eurotakoa izanik. Gai honi buruz, Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren berri eman da, baita ere. Txosten horretan agertzen denaren arabera, eraikiko den baserrietxeak Amoretoko arauetan ezartzen den gutxienezko azalerako partzelarekiko lotura ez du betetzen: arauetan partzela hori 10.000 m²koa da eta proiektuan agertzen dena ez da azalera horretara heltzen. Udalaren asmoa hurrengo arauen berrazteketan partzelaren gutxienezko azalera 7.500 m²etan jartzea da. Hori dena kontutan hartua, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Eskatutako obretarako baimena ematea, ondorengo baldintzei loturik:

- 1) Lanak proiektuan aurkeztu denarekin bat egon beharko dute. Baimenaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legalizazio espedientea eskatu ahal izango da.
- 2) Aparejadorearen kontratua Udaletxean aurkeztu beharko da.
- 3) Lanak bukatzeko epea urte bikoia izango da, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik baimenaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako baimen epea luzatu ahal izango da, urte bi horien barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.
- 4) Lanak hasi aurretik Udal Idazkaritzan 5.489,38 € ordaindu beharko ditu, espedientean agertzen denaren arabera. Erreplanteo akta egin beharko da baita ere.
- 5) Lanak egiterakoan, kontuan hartuko dira indarrean dauden araudi guztiak, batez ere laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak.
- 6) Eraiki nahi den etxebizitza baserri lanari lotuta egongo da. Foru Aldundiko Nekazaritza saileko ziurtagiria aurkeztu beharko da Udaletxean. Era berean, baserrietxea gutxienez 7.500 m²ko lurzatiari lotuta egongo da.
- 7) Lanen amaieran okupazio baimena eskatuko da, dokumentu hauek aurkeztuz: obra amaierako ziurtagiria eta likidazioaren laburpena, guzti hau obrako tekniko zuzendariaren Elkargo Profesionalak bisatuta.
- 8) Obretarako baimen hau jabeak eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

3.- UDAL SARETIK UREN TOMA BAT EGITEKO GORKA ZATIKA KORTABITARTE JAUNAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.-

Eleizalde auzoan eraikitzeke den baserrietxearen lanetarako, udal saretik uren toma bat egiteko udal baimena eskatuz, Gorka Zatika Kortabitarte jaunak aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udal ur saretik toma bat egiteko udal baimena ematea, aurretiaz toma eskubideegaitik 90,15 euro ordaindu beharko dituelarik. Uren toma udal zerbitzu teknikoak esaten duen tokian egin beharko da; eta udaletik azaldutako espezifikazio teknikoekin (materialak,...).

4.- 2004. URTEKO EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUA ONARTZEA.-

Alkate-udalburu andreak 2004. urterako udal aurrekontuaren egitasmoaren, aurrekontu beterazpenari buruzko udal arauaren eta plantila organikoaren berri eman du. Era berean, jakinarazi du aurrekontua idazterakoan legezko beharkizunak bete direla. Eta aurrekontua agertzen denarekin udalaren garapenerako eta mantenimendurako beharrianak betetzen direla, baita legeak ezartzen dituen gutxienezko beharrianak eta betekizunak ere

Azkenik, adierazi du, indarreango araudiak ezartzen duenaren arabera, erabaki hau behin-behinekoa dela. Aurrekontuari buruzko iragarkia jendaurrean egongo den epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, legez erabaki hau behin-betikotzat joko da.

Udalbatzak, 2004. urterako proposatutako udal aurrekontua, bere beterazpenari buruzko udal araua eta 2004ko plantila organikoa aho batez onartzea erabaki zuen. Kapituluaz laburturik, honela da:

SARRERAK

1. Zuzeneko zergak	41.750,00 €.
2. Zeharkako zergak	40.350,00 €.
3. Tasak eta beste sarrerak	29.750,00 €.
4. Transferentzia arruntak	303.000,00 €.
5. Ondasunezko sarrerak.....	4.525,00 €.
7. Kapital transferentziak	463.900,00 €.
9. Finantza pasiboak	50,00 €.

SARRERAK GUZTIRA 883.325,00 €.

GASTUAK

1. Pertsonalaren ordainsariak	114.210,00 €.
2. Ondasun eta zerbitzu erosketa	76.250,00 €.
3. Finantz gastuak	750,00 €.
4. Transferentzia arruntak	103.280,00 €.
6. Inbertsio errealak	588.785,00 €.
9. Finantza pasiboak	50,00 €.

GASTUAK GUZTIRA 883.325,00 €.

Erabaki honi buruzko iragarkia BAO n eta ohiko tokietan hamabost egunez jarriko da, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Idazkari-kontuhartzaileak edo gordailuzainak, Udalbatzari aurkeztutako erreklamazioen berri emango diote, bakoitzat bere eskumenari dagokionean; edo bere kasuan ezezko ziurtagiria.

5.- 2004KO JAIK ANTOLATZEKO UDALAREN DIRU LAGUNTZA ONARTZEA.-

Amorotoko Jai Batzordeak aurkeztutako 2004ko San Martin jaietako gastuei aurre egiteko udal honen diru laguntza eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Amorotoko Jai Batzordeari HAMAR MILA (10.000,00) eurotako diru laguntza ematea 2004ko San Martin jaietarako antolatutako egitarauko gastuei aurre egiteko.

6.- GAZTEDI FOROARI ATXIKITZEA.-

Bizkaiko Foru Aldundiak, 196/2003 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Toki eremuan gazteei zerbitzuak emateko "Gaztedi Foroa" sortu zuen. Foro honen nahia gazte arloko Politika Integrala ahalbidetzea da. Horretarako ezinbestekoa da Toki Erakundeen laguntza eta parte hartzea, beraiek baitira herritarrengandik hurbilen daudenak.

Aipatutakoa kontutan izanda, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Amorotoko Udala 196/2003 Foru Dekretuak sortutako "Gaztedi Foro"ari atxikitzea.

7.- AMNISTIA INTERNACIONAL TALDEAREN MOZIOA.-

Amnistia Internacional taldeak heriotz zigorrari buruz aurkeztutako mozioaren berri eman da eta hitzez-hitz honela dio:

"Azkenengo hamabost urteetan Amnistia Internacional erakundeak argitaratutako datuen arabera hogeitahamar pertsona baino gehiago izan dira exekutatuak munduan, hamazortzi urte bete aurretik egindako delituengatik.

Heritoz zigorra eranstea debekatua dago adin txikikoentzat nazioarteko Legegian, baina hala ere, herrialde batzuetan mantendu egiten dute.

Adin txikikoen exekuzioak gero eta gehiagotan ematen ari dira. Amnistia Internacional Erakundeak hogeitahamalar kasu baieztatu ditu 1990 eta 2003a bitartean zortzi herrialdeetan Congoko Errepublika, Iran, Nigeria, Pakistan, Saudi Arabiar, Yemen, Txina eta EE.Betan, non azken hauetan beste guztien artean baino hemeretzi kasu gehiagotan egin izan dira.

Heriotza zigorrak bizitzeko eskubidea deusezten du, eta krudel eta gizakabea da. Amnistia Internacional beste giza erakundeekin batera Gobernuen sentipena suspertzen ari da. Erakundeak eta Antolakundeak adin txikikoen exekuzioak amaitzea bultzatzen du. Eta handik abiatuz heriotza zigorrarekin orokorrean bukatzea.

Zentzu honetan Udaletxe horrek ere erantzun eman ahal eta behar du, oroar sortzen diren adierazpideekin batera geldiarazteko exekuzioak edo eta prozesu horietan sartzeko.

Beraz, honako proposamena bideratzea eskatzen dugu:

LEHENENGO: Adin txikikoen exekuzioak gaitzeztea. Nazioarteko Legebidea bete dadin.

BIGARRENA: Bat egitea zentzu honetan Amnistia Internazionalak bultzatuko dituen ekintzekin.

HIRUGARRENA: Mozioa hau eramanaraztea Espainiako Gobernuko presidenteari, Europa Batasuneko presidenteari eta Europako Parlamentuko presidenteari."

Gaia azterturik, Udalbatzak mozio honetako hiru puntuak onartzea erabaki du.

8.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Herriko Tabernaren fakturak, 89,40 euro eta 66,00 euro.
- Canonen fakturak, 23,34 euro eta 129,49 euro.
- Tubos Larrondo, S.L.ren faktura, 524,09 euro.
- Zorelorren faktura, 199,75 euro.
- Euskitzen faktura, 15,50 euro.
- Beñekoa, S.L.ren faktura, 3.496,24 euro.
- Fontaneria Letraukua, S.L.ren faktura, 113,04 euro.
- SGAEn faktura, 577,68 euro.
- Bizkorren faktura, 137,70 euro.
- Bizkaia Irratiaren faktura, 266,80 euro.
- Jaioren faktura, 21,39 euro.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamarrak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.